

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EDIZIOA ETA POSTPRODUKZIOA GAUZATZEA	Iraupena	80
		Berariazkoa	
Kodea	UF0815		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Edizioko eta postprodukzioko eragiketak	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Emaitzen balorazioa, eta edizioko eta postprodukzioko materialen kudeaketa	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0949_3 EDITATZEA, POSTPRODUKZIOKO TRESNAK ETA HAINBAT JATORRITAKO MATERIALAK TXERTATUZ gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Edizio-gela batean, ediziorako/postprodukzioko beharrezkoak diren ekipoak prest jartzea.

EI1.1 Edizio-sistema osoaren eraginkortasuna aztertzea, periferikoak, seinale-fluxua eta biltegitratze-sistema, eta hala dagokionean, grabazio-sistema aztertuz.

EI1.2 Magnetoskopioen mantentze-lanak erregularitasunez egitea, edo gainbegiratzea, eta esku-hartze espezializatua behar duten disfuntzioen diagnostikoa egitea.

A2: Ikus-entzunezko produktuen edizioa eta/edo postprodukzioa egitea, ekipoak trebetasunez erabiliz, eta edizio-teoriak, -kodeak eta -teknikak aplikatuz.

EI2.1 Egoki aplikatzea denbora-kodeen offset bat edizio batean.

EI2.2 Emandako proiektu batetik abiatuz, irudien eta iraupen jakin bateko soinuaren pasarteak txertatzea sekuentzialki eta alternatiboki.

EI2.3 Emandako proiektu batetik abiatuz, edukia editatzea, iraupen zehatz eta jakin bateko edizioa lortzeko.

EI2.4 Edizio ez-linealeko software estandarizatu bat erabiltzea.

EI2.5 Offline muntaketa bat egitea grabazio-eskaleta batetik abiatuz, eta dagozkion EDLak sortzea.

EI2.6 Mobioliak, zenbakitzaileak, bobinatzeo makinak, lokailuak eta zinema-materialaren kontagailuak erabiltzea.

EI2.7 Programa jakin baten audioari dagokionez:

- Irudiak eta dagozkien audioak sinkronizatzea, klaketetako irudi-eta soinu-marketatik edo beste edozein erreferentzialatik abiatuz.
- Soinu-banda bat txertatzea sekuentzia jakin batzuetan, haien erritmo bisualari erreparatuz.
- Soinu-banda bat txertatzea irudi jakin batzuetan, denbora-kodeen offsetak erabiliz.
- Sekuentzia-edizio bat egitea zenbait audio-kanalekin, kalitate-maila jakin bati eutsiz, eta zinta nagusian nazioarteko banda sortuz.
- Audioaren aurreko eta ondorengo koleoak dituzten bi sekuentzia ongi muntatzea.

EI2.8 Emanaldirako kopia bat egitea, PPD arau jakin batzuei jarraikiz (zabaltzeko eta emateko prestatua).

EI2.9 Ikus-entzunezko proiektu bati dagozkion materialetatik abiatuz, editatzea, azken edizioan hauek kontuan izanik:

- Asmo narratiborako egokiak diren erritmoa eta egitura.
- Denborak zehaztuekin bat etortzea.
- Aukeratutako planoak asmo narratiborako egokiak izatea.
- Irudiaren eta soinuaren arteko sinkronizazio hobezina izatea.

A3: Edizio-prozesuetan, efektu optiko, dinamiko eta bereziak sortzea eta/edo txertatzea, uneoro software eta teknologia egokienak erabiliz.

EI3.1 Efektu jakin bat prestatzeko beharrezkoak diren faseak eta tresnak zehaztea.

EI3.2 Irudi jakin batean argiztapena ordeztzeko beharrezkoak diren kanpo-giltzak zehaztea.

EI3.3 Efektu bat sortzeko beharrezkoa diren giltzak zehaztea eta sortzea, eta kasu bakoitzerako mota (luminantzia, krominantzia, matte, etab.) eta prozesaketa egokiena erabakitzea.

EI3.4 Edizioan kanpo-plataformetatik datozen efektuak txertatzea eta egokitzea.

EI3.5 Irudiaren abiadura aldatzeko efektua sortzea (izoztea, moteltzea, azkartzea), eta kasu bakoitzerako zer prozesaketa-mota behar den zehaztea.

EI3.6 Oinarrizko efektu-sorta bat sortzea, software espezializatuak menderatuz.

CE3.7 Edizio-sekuentzia batean, idazkunak txertatzea, idazkunak sortzeko makinetatik edo software lagungarritik datozenak.

EI3.8 Efektu-sorgailu batean perspektiba-efektu jakin bat egitea, zehaztutako irizpide batzuk betetz.

EI3.9 Audio-efektuak sortzea, eta asmo narratibora egokitzea.

EI3.10 Efektu jakin batzuk biltegitratze-sistema informatiko batean gordetzea, azkar eta seguru aurkitzeko aukera bermatuz.

EI3.11 Irudiaren kalitate bisuala doitzea eta berdintzea, aldatu beharreko parametroak eta irudiaren prozesaketa-maila zehaztuz, tresna propioekin edo ekipo eta software lagungarriekin egin beharrekoak.

EI3.12 Ikus-entzunezko kontakizunen gidotik eta grabazioetatik abiatuz:

- Irudien trantsizioak egitea, kateatze edo gortina bidez, eta parametroak ikus-entzunezko kontakizunaren asmo narratibo eta espresiboaren arabera doitzea.
- Kolore- eta luminantzia-inkrustazio bat egitea.
- Efektu berezi ugari aplikatzea, software espezializatuak menderatuz.
- Hainbat motatako giltzak sortzea, eta efektuaren lorpenera egokitzea.
- Beste lan-ingurune batzuetako efektuak eta elementu grafikoak inportatzea eta txertatzea.
- Erabilitako irudien kalitatea zuzentzea eta berdintzea.

Edukiak

1. Zinema-lanen eta lan bideografikoen edizio-gelen konfigurazioa eta optimizazioa

- Gela-motak:
 - Zinema-lanen edizio-gelak.
 - Edizio-gelak.
 - Bideoaren postprodukzio-gelak.
 - Audioen hartualdi- eta postprodukzio-gelak.
- Edizio- eta postprodukzio-ekipoen mantentze-lanak.
 - Akatsak eta matxurak detektatzeko metodoak.
 - Ekintza zuzentzaileak
 - Prebentziozko mantentze-lanak egiteko eragiketak.

2. Edizio-egitura eta -prozesua

- Asmo narratiboa. Edizioa eta espresibotasuna.
- Planoen arteko trantsizioak, eta haien balio espresiboa eta narratiboa. Kateatzeak. Gortinak.
- Planoa aukeratzeko eta denbora doitzeko irizpideak.
- Jarraitutasunari eustea.
- Puntuazio-ikurren eta trantsizioen balio espresiboa.

3. Eragiketak edizio-ekipoekin

- Mobiolak.
- Zenbakitzaileak.
- Bobinatze makinak.
- Lokailuak.
- Zinema-materialaren kontagailuak

4. Edizio-teknikak.

- Eragiketak edizio ez-linealeko softwarearekin.
- EDLen sorrera.

5. Musikaren edizioa

- Espazio-banaketa.
- Soinu-planoak.
- Soinu-hizkuntza.
- Soinu-bandaren eraikuntza.
- Ikus- eta soinu-planoen sinkronismoa.

6. Efektuak sortzea edizioan

- Faseak eta tresnak zehazteko irizpideak
- Gainjartze/inkrustatzeko giltzak sortzea:
 - HUE.
 - CLIP.
- Kanpo-plataformetatik datozen efektuak txertatzea eta egokitzea.
- Efektu-prozesadoreak: Motak. Prozesadoreak aukeratzeko irizpideak.
- Irudiaren abiadura aldatzen duten efektuak sortzea.
 - Izozte.
 - Moteltzea.
 - Azeleratzea.
- Idazkunak sortzea eta txertatzea edizio-sekuentzia batean.
- Efectuen memoriak.

- Irudiaren kalitate bisualaren doikuntza.
 - Parametroak.
 - Prozesaketa-maila.
 - Tresna informatikoak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ikus-entzunezko lanen edizioa eta postprodukzioa